

Elene Ulacia Arruebarrena

Itzulpengintza eta interpretazioa 2020-2021

Gradu amaierako lana

OBRA BERAREN ITZULPENAK DENBORAN ZEHAR:

ASTERIXEN KOMIKIAK EUSKARAZ

Tutorea: Bego Montorio Uribarren

Filologia eta Historia Saila

Letren Fakultatea

UPV-EHU

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Laburpena

Gradu amaierako lan honetan *Les aventures d'Astérix* komiki bilduma ezaguneko albumetako baten euskarazko hiru itzulpen aztertuko ditugu, horietako bakoitzaren itzultzaileak hartutako erabakiak –itzulpen estrategiak eta teknikak– zein izan diren jakin eta ulertzeko, baita itzulpen bakoitza argitaratu zen testuinguru soziolinguistikoarekiko harremana antzemateko ere.

René Goscinny eta Albert Uderzoren Asterixen komiki bilduma haur eta gazte literaturaren obra ia kanonikoa bilakatu da honezkero, eta horrek aukera ematen digu ikuspegi traduktologikoa eta historikoa uztartzeko. Aipatutako azkenak berebiziko garrantzia du euskarazko itzulpenen kasuan, argitaratutako bertsio bakoitza euskararen normalizazioaren une jakin batekin loturik baitago, eta itzulpen oro bere garaiaren fruitua ere baden neurrian, hizkuntzaren normalizazio prozesuaren aztarnak aurkituko ditugu azterturiko bertsioetan.

Lana hiru atal nagusitan dago banatuta. Lehendabizikoan, jorratuko dugun materiala aurkezten dugu: Asterixen abenturen bilduma. Jatorrizko obrari buruzko argibide nagusiak emateaz gain, euskarazko itzulpenak beren testuinguru soziolinguistikoan kokatu ditugu, funtsezkoa baita erreferentzia hori egin nahi dugun azterketarako.

Bigarren atalak osatzen du lanaren benetako mamia, hiru euskal itzulpenen erkaketa egiten baitugu bertan. Lehenik eta behin, azterketa egiteko erabiliko ditugun irizpideei nolabaiteko marko teorikoa ematen dion azalpena aurkeztu dugu, eta, horren harira, aztertuko ditugun hiru arlo zehatzak –pertsonaien izenak, onomatopeiak eta erreferente kulturalak– aukeratu izanaren egokitasuna argudiatu.

Pertsonaien izenen atalari dagokionez, interesgarria iruditu zaigu gaztelaniazko eta ingelesezko itzulpenak ere kontuan hartzea, hizkuntza guztietan estrategia eta teknika berberak erabiltzen ote diren egiaztatzeko asmoz. Onomatopeien kasuan, gaztelaniazko bertsioa erabili dugu euskarazkoekin batera, euskal hiztunen egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta eragina izan zezakeelakoan. Eta erreferente kulturalari dagokienez, azkenik, euskarazko bertsioak baino ez ditugu kontuan hartu, itzultzaile

guztien estrategia nagusia etxekotzea baita kasu horretan, eta, beraz, euskal itzultzaileen proposamenen arteko aldeak aztertu nahi izan ditugu.

Hirugarren atala ondorio orokorrei eskaini diegu. Erkaketa zehatzari dagozkion ondorioak atal bakoitzaren amaieran jarri ditugu, kasu bakoitzean zer berezi bati erreparatu baitiogu, baina beharrezkoa iruditu zaigu ondorio orokor batzuk azpimarratzea, aztertutako itzulpenetan nagusi diren joerak antzemateko eta lan honen hasieran genituen hipotesiak baieztatu diren edo ez egiaztatzeko.

Aurkibidea

0. Sarrera eta metodologia.....	4
1. Asterixen abenturak euskaraz.....	6
2. Astérix Légionnaire: hiru itzulpenen azterketa.....	8
2.1 Pertsonaien izenak.....	8
2.1.1 Lehen mailako pertsonaiak edo protagonistak.....	9
2.1.2 Bigarren mailako pertsonaiak.....	11
2.1.3 Ondorioak.....	14
2.2 Onomatopeiak.....	15
2.2.1 Onomatopeien azterketa.....	17
2.2.1.1 Barrea.....	17
2.2.1.2 Lehen mailako onomatopeiak.....	20
2.2.2 Ondorioak.....	22
2.3 Erreferente kulturalak.....	23
2.3.1 Erreferente kulturalen azterketa.....	26
2.3.2 Ondorioak.....	30
3. Ondorio orokorrak.....	31
4. Bibliografia.....	33

Erabilitako laburdurak

EN: ingelesa

ES: gaztelania

EUS: euskara

JB: jatorrizko bertsioa

BI: bertsio itzulia

0. Sarrera eta metodologia

Lan hau egitera bultzatu nauen eragilea frantses kulturarekiko eta itzulpengintzarekiko dudan interesa izan da. Literatura frantsesa maite dugun guztiontzat, erreferente ukazina da Asterix komiki bilduma. Nekez aurkitu daiteke galiar bikotearen abenturekin hazi ez den heldurik, edo, besterik gabe, haiei buruz ezer entzun ez duenik.

Euskarara itzuli diren Asterixen komikiak oso ugariak dira, baina guk obra bakarrarekin egingo dugu lan: *Astérix Légionnaire*. Aukeraketa ez da erraza izan, irakurle bezala bildumako komiki guztiak interesgarriak eta entretenigarriak baitira. Baina, bi arrazoi nagusi daude komiki hau hautatzeko. Alde batetik, epe laburrean baina garai oso desberdinetan hiru aldiz euskaratu da, nahiz eta ez izan ezaugarri hori duen obra bakarra. Bestalde, legioaz diharduenez, Erromako Inperioko lurralde askotako pertsonaiak eta kulturak agertzen dira, eta aztertzeko oso aberasgarria izan daiteke.

Itzulpen batean jorratzen diren eremuak ugariak izanik, horietako bakoitza aztertuz gero gradu amaierako lan baten mugak luzaz gaindituko genituzke. Gaia zehaztu eta mugatu behar horrek eraman gaitu fokua hiru ataletan jartzera: pertsonaien izenak, onomatopeiak eta erreferente kulturalak.

Lanaren helburu nagusia *Astérix Légionnaire* komikiaren hiru euskal itzulpenak aztertzea da. Itzultzaile bakoitzak zein erabaki, eta zergatik, hartu dituen jakin nahi dugu, iruditzen baitzaigu horren denbora gutxian hiru itzulpen egiteak euskararen egoerarekin zerikusia izan dezakeela, eta hori egiaztatu nahi dugu.

Lanaren muina kasu praktiko baten azterketa izango bada ere, egokia iruditu zaigu jorratuko ditugun testuak deskribatzea, beraz, lehen atalean, Asterixen euskal itzulpenek eduki duten bilakaeraren argazki orokor bat ematea izango dugu helburu, eta, hala, landutako hiru komikiak argitaratutako garai zehatz bakoitza aztertuko dugu. Bigarrenik, *Astérix Légionnaire* komikiaren euskal itzulpenen azterketan murgilduko gara, itzultzaileen erabakiak ikertzeaz gain, erkaketa horren oinarrian dauden kontzeptu eta ikuspegi teorikoak azalduz.

Metodologiari dagokionez, lan erdi praktiko erdi deskriptiboa den heinean, era honetako lan bati dagozkion teknika eta baliabideak erabiliko ditugu. Zati praktikorako

sei komikiz baliatuko gara: *Astérix Légionnaire* (1967), *Asterix Legionario* (1969), *Asterix the Legionary* (1970), *Asterix Lejionarioa* (1976), *Asterix Legionaria* (1992) eta *Asterix Legionarioa* (2014). Horietako hiru euskarazko bertsioak dira, eta besteak, frantsesezko jatorrizkoa, gaztelaniazkoa eta ingelesezkoa. Azken bi bertsio horiek beste hizkuntzetan erabili dituzten bideak ikusteko baliatuko ditugu. Marko teorikorako aldiz, adituen liburuez, datu-baseez, webgunez eta hiztegiez baliatuko gara.

Badakigu landuko ditugun atal gehienetan askoz gehiago sakon daitekeela, baina gure helburua lortzeko, atal batean zentratu beharrean aberasgarriagoa iruditu zaigu atal bakoitzean (pertsonaien izenak, onomatopeiak eta erreferente kulturalak) apur bat barrentzea, guztiak sakonki aztertuko bagenitu lana luzeegia izango litzateke eta.

1. Asterixen abenturak euskaraz

1959an, *Pilote* aldizkari frantsesak *Les Aventures d'Astérix* bildumaren lehen zenbakia argitaratu zuen, eta sei hamarkada beranduago, mundu osoko jarraitzaileen begikotasuna lortzen jarraitzen du. Ukaezina da saga horren arrakasta: 111 hizkuntzatarara itzuli da, 380 milioi kopia baina gehiago saldu dira, eta komikietan ez ezik, Asterix pelikuletan, bideo-jokoetan, erakusketetan zein mota guztietako *merchandisingean* ikusi dugu (Koch, 2019).

Asterixen euskarazko lehen itzulpena 1976an irakurri ahal izan genuen, eta ordutik gaurdaino, etengabe itzuli dira Asterixen istorioak euskarara, baina ez beti maiztasun berarekin. NorDaNor¹ datu-basearen arabera, 1976tik 1978ra 8 titulu argitaratu ziren, guztiak Mas-Ivars argitaletxearen eskutik. 1986tik 2001era arte 30 titulu kaleratu zituzten Elkar, Grijalbo-Dargaud eta Juniorrek elkarlanean. 2002tik gaur egun arte 25 titulu argitaratu dira. Horietako 21 Salvat eta Bruñok elkarlanean argitaratu dituzte, eta 4, Salvatek bere kabuz. Hortaz, hiru olde egon direla esan daiteke, bakoitza argitaletxe bati lotuta.

Hiru olde horietako bakoitzean euskararen egoera guztiz ezberdina izan da, eta horrek komikietan erabilitako euskaran eragina izan du. Lehenengo oldean (1976-1978) diktadura bukatu berria zen. Baziren han-hemenka sortutako ikastolak eta Euskaltzaindiak euskara baturako lehen urratsak proposatuak zituen, baina euskara ez zegoen batere finkatua (Euskara Institutua EHU, d.g.). Ondorioz, lehen aldiz komiki batzuetan euskara batua erabiltzen hasi bazen ere, badago aldea gaur egun erabiltzen dugun euskara batuarekin. Oro har, urte horietan nahiko itzulpen gutxi argitaratu ziren, besteak beste euskararen normalizazio eskasaren eraginez. Itzultzaile lana profesionalizatu gabe zegoenez, lehen olde horretan argitaratu ziren Asterixen itzulpenetan ez zen itzultzailearen izenik agertzen, eskubideen jabeari bakarrik egiten zitzaion aitortza.

Bigarren olderako (1986-2001) aldiz, gauzak guztiz aldatu ziren. Azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legea indarrean jarri zen, euskararen erabilera normalizatzeke oinarrizko legea. Berebiziko garrantzia izan zuen, bertan finkatu baitzen nola bermatu behar den euskararen koofizialtasuna. Koofizialtasun horren ondorioz, euskararen

¹ 2021eko maiatzaren 26an kontsultatua.

erabilera bultzatzeko ekimen asko sortu eta euskararen presentzia toki guztietan nabarmendu zen. Gainera, testugintza guztia euskaraz ere ematen hasi behar izan zen; hortaz, itzulpen lanen bolumenak gora egin zuen ikaragarri, itzultzaile lana profesionalizatu eta euskarazko itzulpen ikasketak sortu ziren. 10/1982 Legeko 26. artikuluan finkatu zen herri-agintek neurri egokiak hartu eta beharrezko bitartekoak jarriko zituztela gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera finkatzeko, kulturaren barne. Beraz, euskal literaturak bultzada handia izan zuen, baita komikigintzak ere. Garai horretarako euskara askoz normalizatuago zegoen: Euskaltzaindiak arau gehiago emanak zituen, eta ohikoagoa zen euskararen erabilera era guztietako testu eta jardunetan, horregatik, komikietako euskara batua gaur egungoaren oso antzekoa zen. Bestalde, ordurako, itzultzailearen izena agertzen zen Asterixen itzulpenetan. Azpimarratzekoa da pertsona berak euskaratu zituela album guztiak, bat izan ezik.

Hirugarren oldean (2002-2021) euskara batua guztiz finkatu da. Jada era askotako itzulpenak egiten dira. Teknologiaren garapenak eraginda, baliabide digitalak guztion eskura daude eta mota ugarietako itzulpenak lortzea erraza da. Garai honetako itzulpenetako euskara batua eta aurreko oldeko itzulpenena oso antzekoa da, eta, itzulpen kopuruek gora egin dute arlo gehienetan. Olde honetako Asterixen euskarazko bertsiotan itzultzailearen izenak agertzen dira beti, eta pertsona batzuk errepikatzen diren arren, itzultzaileak ez dira beti berberak.

Euskararako haur eta gazteentzako literatur itzulpenen corpusak bilakaera harrigarria eduki du azken mendean. NorDaNor² datu-basearen arabera, 1900etik 1976ra arte (Asterixen lehenengo euskal itzulpena argitaratu arte) 57 obra argitaratu ziren. 1977tik 1990era zifra hori hamabost aldiz baino gehiago hazi zen, 842 itzulpen argitaratuz, eta 1991etik 2021era 4067 itzulpen kaleratu dira.

Hiru garai horietako bakoitzean euskal itzulpenaren egoera guztiz ezberdina izan da. Itzulpen bakoitza bere garaiko fruitua da, eta, euskararen eta euskal itzulpengintzaren egoerak eragin diezaioke. Guk aztertuko ditugun komikietako bakoitza garai batekoa denez, ezaugarri horiek irudikatzen dituzten edo ez behatu ahal izango dugu.

² 2021eko maiatzaren 26an kontsultatua.

2. Astérix Légionnaire: hiru itzulpenen azterketa

Astérix Légionnaire Asterix Galiarra komiki bilduma ospetsuko hamargarren abentura da. 1967an argitaratu zen, eta, bederatzi urte beranduago, 1976an, lehen euskal bertsioa irakurri ahal izan genuen. Soilik hamasei urte beranduago, 1992an, bigarren itzulpena argitaratu zen, eta, 2014an, hirugarrena. Hogeita hemezortzi urtetan, beraz, komiki beraren hiru itzulpen kaleratu dira, hiru itzultzaile ezberdinen eskutik: lehena ez dakigu nork itzuli zuen³, bigarrena Joxemari Azurmendik eta hirugarrena Usua Lasak.

Jarraian, hiru itzulpenok aztertzen hasiko gara, garaian garaiko itzulpenen arteko ezberdintasunak ikusi eta konparatzeko. Horretarako hiru puntu zehatzetan zentratuko gara: pertsonaien izenak, onomatopeiak eta erreferente kulturalak.

2.1 Pertsonaien izenak

Erkaketari hasiera emateko, komikiko pertsonaien izenak nola itzuli diren aztertzeari ekingo diogu. Goscinny eta Uderzok frantses fonetikarekin jolastu nahi izan zuten, izen gehienak hitz joko batetik sortuz. Gainera, pertsonaien izenen amaiera jatorriaren arabera da, hots, nongoak diren azaltzen da bukaerekin. Emakumeen izenak salbuespenak dira, horiek ez baitute amaiera jakin bat izaten. Honako hauek dira bukaerak (Gómez eta Gómez, d.g.):

- **Bretoien** izenek **-is**, **-os** edo **-ax** amaiera dute: *Faupayélatax*.
- **Egiptoarren** izenek **-is** amaiera dute: *Courdeténis*.
- **Erromatarren** izenek **-us** edo **-um** amaiera dute: *Belinconnus*, *Cédupeuojus*, *Hotelterminus* eta *Processus*. *Scipion* salbuespena da, erromatarra izanik ere pertsonaia historiko baten izena eman diotelako.
- **Galiarren** izenek **-ix** amaiera dute: *Abraracourcix*, *Assurancetourix*, *Astérix*, *Idéfix* (taldean sartzen dugu nahiz eta animalia izan), *Obélix*, *Panoramix*, *Acidcloridrix*, *Plantaquatix*, *Pneumatix* eta *Tragicomix*. Salbuespen bat dago, *Mouléfix*, belgikarra izanik galiar izenen amaiera bera baitu.
- **Godoen** izenek **-ic** amaiera dute: *Chiméric*, *Figuralégoric*.

³ Nahiz eta ez jakin nork itzuli zuen, badakigu Usua Lasa eta Joxemari Azurmendi ez zirela izan.

2.1.1 Lehen mailako pertsonaiak edo protagonistak

Asterixen bilduma guztietan edo gehienetan agertzen diren pertsonaiak sei dira, eta honela itzuli dira beste hizkuntzetera⁴ (Esteban, 2017):

1. ABRARACOURCIX



Galiar herrixkako burua da. Izena frantsesezko “*tomber sur quelqu’un à bras raccourcis*” esaeratik dator, hau da, norbaiti indarkeriaz erasotzea. Gaztelaniako bertsio ia guztietan jatorrizko izena mantentzea erabaki da, nahiz eta zenbait liburukitan **Abrazopartídix** izenaren aldeko apustua egin. Ingelesaren kasuan, britainiarrek **Vitalstatistix** hitz jokoak erabili dute. *Vital Statistics*, izatez, jaiotza, heriotza, ezkontza eta dibortzioei buruzko erregistro zibileko estatistikak dira (Cambridge University Press, d.g., 1. definizioa), baina esamolde bera erabiltzen da lagunartean pertsona baten gorputz-neurriak adierazteko, eta Abraracourcixen sabel handiaren tamainari egiten dio keinua. Estatu Batuetan hainbat izen erabili dituzte, esaterako, **Macroeconomix**, **Tonabrix** (*ton of bricks*, tona bat adreilu, berriz ere pisuari erreferentzia eginez) eta **Bombastix**. Hiru euskal itzulpenetan jatorrizko bertsioari eutsi zaio, baina 1992koan eta 2014koan ortografia egokituz (**Abrarakurzix**).

2. ASSURANCETOURIX



Herrixkako koplari ezagunaren izena “*assurance tous risques*” (arrisku orotako aseguru) epitetotik dator. Gaztelaniako zenbait liburukitan **Seguroatodoriésguix** eta **Asegurancetúrix** proposamenak erabili dira, baina finkatze eskasaren ondorioz ale gehienetan jatorrizkoari eutsi zaio, **Asurancetúrix**. Britainiarrek pertsonaiaren ahots beldurgarriari keinua egitea erabaki dute, **Cacofonix** izena hautatuz. *Cacophonix* hitzaren eratorria da eta soinu desatseginen metaketari egiten diote aipamena. **Stopthemusix** (*stop the music*, musika geratu), **Franksinatrix** (Frank Sinatra abeslariagatik) eta **Malacoustix** izena ere eman zaio ingelesezko itzulpenetan. Hiru

⁴ Atal honetan irudiak erabili ditugu izenekin egiten diren hitz jokoak ulertzen laguntzen dutelako. Irudi guztiak *Astérix-Le site officiel*etik eskuratu ditugu. <https://www.asterix.com/les-personnages/>

euskal itzultzaileek ortografia moldaketak egin dituzte. 1976koan **Asuranceturix** erabili da, 1992ko eta 2014ko bertsioetan **Asuranzeturix** erabili den bitartean.

3. ASTÉRIX



Komikiko protagonista ezaguna, galiar ilehori txikia, hizkuntza guztietan edo ia guztietan berdin ezagutzen da (hizkuntza batzuetan azentu-markarik gabe idazten da). *Astérisque* (izartxo) sinbolo tipografikotik dator izena, testu baten oin-ohar bat adierazteko erabiltzen dena.

4. IDÉFIX



Obélixen txakur txikiaren izena frantseseko “*idée fixe*” hitzetatik dator (ideia finkoa). Txakurraren izaera burukoi eta tematia adierazten du. Gaztelaniako zenbait bildumatan jatorrizko izenari eutsi zaio, beste batzuetan, aldiz, izena gaztelaniatu eta **Ideafix** erabili da. Ingelesez aldiz, **Dogmatix** izenaren aldeko apustua egin da. *Dogmatic* adjektibotik dator, bere ideiak eztabaidaezinak balira bezala adierazten dituen norbaiti erreferentzia eginez. Gainera, izenak *dog* darama, hitz-joko sinple baina eraginkorra sortuz. Euskal itzultzaileek jatorrizko bertsioari eutsi diote, azentu-marka kenduta.

5. OBÉLIX



Obélisque adieratik dator izena. Bi esanahi nagusi dituela uste da: monumentua eta zeinu tipografikoa. *Obélisque* tamaina handiko monumentu bat da, eta protagonista honen tamainarekin bat dator. Baina, beste adiera bat ere aipatzen da (Campese, 2015), zeinu tipografikoa (*obèle* izenez ere ezaguna), Asterixen izenaren esanahiaren antzera. Bigarren oin-ohar bat adierazteko erabiltzen da, eta Obelix beti bere lagun Asterixekin ibiltzen denez, ez da kasualitatea *Astérisque* eta *Obélisque* aukeratu izana. Horretaz gain, Goscinyren aitona tipografoa omen zen, eta hari egindako omenaldia izan daiteke. Hizkuntza guztietan edo ia guztietan jatorrizko izena mantendu da, baita euskaraz ere, azentu-marka kenduta.

6. PANORAMIX



Herrixkako druidaren izena (*panoramique*) grekotik dator, eta *pan* (dena) eta *horama* (ikusmena) esan nahi du, hau da, dena ikusten duen pertsona, druidaren papera adieraziz. Izena hizkuntza gehienetan mantendu da, baina britainiarrek euren izen propio eta polemikoa sortu zuten, **Getafix**. *Get a fix* esamoldeak “droga txutatu” edo “droga dosi bat lortzea” esan nahi du. Eztabaida handiak sortu zituen izenak, eta zenbaitek haurrentzat desegokia zela esaten zuen. **Readymix** izenagatik aldatu zuten, zementua fabrikatzen duen Erresuma Batuko enpresa baten izena. Estatu Batuetan **Magigimmix** (*magic gimmicks*, magia trikimailuak) eta **Vitamix** (*vitamin*, bitamina) izenak eman dizkiote. Bai gaztelaniazko bai euskal bertsiok jatorrizko izena bere horretan erabili dute.

2.1.2 Bigarren mailako pertsonaiak

Bigarren mailako pertsonaiak hamazazpi dira aztertu dugun komikian, eta, asko, abentura honetan bakarrik agertzen dira.

7. ACIDCLORIDRIX: <i>Acide chlorhydrique</i> , azido klorhidrikoa.
EN: Vitriolix . <i>Vitriol</i> , bitrioloa. Azido klorhidrikoa <i>vitriol</i> izenez ere ezagutzen da.
ES: Jamesbondix . James Bond 007 agente sekretuari erreferentzia egiten dio, pertsonaia Thapsus kanpamentuko espioi onena baita.
EUS: Acidcloridrix , Jamesbondix , Azidokloridrix .
8. BELINCONNUS: <i>Bel inconnu</i> , galant ezezaguna.
EN: Dubius Status . Latinetik dator eta egoera dudagarria esan nahi du.
ES: Belicus . <i>Bélico</i> , beliko. Gerrari dagokiona.
EUS: Belinconnus , Belikus , Belikus . Jatorrizkotik aldendu arren, Belikus izenak pertsonaiaren izaera borrokazalea islatzen du.
9. CÉDUPEUOJUS: <i>C'est du peu au jus</i> , laster amaituko/izango da.
EN: Garrulus Vinus . <i>Garrulous</i> (garrantzirik gabeko gauzei buruz hitz egiten duena) + <i>Vinus</i> (ardo).
ES: Acidoclorhidricus . Azido klorhidrikoa. Bitxia dirudi izen hori aukeratu izana,

jatorrizko bertsioan Acidcloridrix izena duen pertsonaia beste bat baita. EUS: Cedupeujus, Zedupeuojus, Berehalakus.
10. CHIMÉRIC: <i>Chimérique</i> , kimeriko edo ameslaria.
EN: Hemispheric. Hemisferikoa. Hemisferioa zerebro edo zerebeloaren bi erditako bakoitza da, beraz, ziurrenik erotuta dagoela esateko erabiltzen dute. ES: Quimeric. EUS: Quimerik, Kimerik, Kimerik.
11. COURDETÉNIS: <i>Court de tennis</i> , tenis zelaia.
EN: Ptenisnet. <i>Tennis net</i> , teniseko sarea. ES: Campodetenis. Tenis zelaia. EUS: Teniszelairis, Tenismari, Mahaitenis.
12. FALBALA: Parpaila, ehunezko zatia, apaingarri gisa arropen zaiena.
EN: Panacea. Gaitz oro sendatzeko balio duen sendagaia. ES: Falbala. Gaztelaniaz <i>volante</i> edo <i>faralá</i> (parpaila) esan nahi du. EUS: Guztiek Falbala. Euskaraz ez du inolako esanahirik.
13. FAUPAYÉLATAX: <i>Faut payer la taxe</i> , zerga ordaindu behar da.
EN: Selectivemploymenttax. <i>Selective employment tax</i> , Erresuma Batuan zegoen asteko nominaren gaineko zerga bat. ES: Espikininglis. Bretoia denez, ingelesa hitz egiten duela adierazten dute. EUS: Spikininglis, Espikininglis, Espikininglis. Gaztelaniazko itzultzaileek hartutako bideari heldu diote euskal itzultzaileek.
14. FIGURALÉGORIC: <i>Figure allégorique</i> , itxura alegorikoa.
EN: Allegoric. ES: Figuralegoric. EUS: Itxurandikorik, Figuralegorik, Figuralegorik.
15. HOTELTERMINUS: <i>Hôtel terminus</i> , amaierako hotela (<i>terminus</i> latinetik dator eta amaiera esan nahi du).
EN: Nefarius Purpus. <i>Nefarious purpose</i> , helburu maltzurra. ES: Hotelterminus. EUS: Hotelterminus, Hotelterminus, Hotelterminus.
16. LE TRADUCTEUR
EN: Interpreter.

<p>ES: Intérprete.</p> <p>EUS: Itzultzailea, Itzultzailea, Interpretea. 2014ko bertsioan itzultzailearen eta interpretearen arteko bereizketa egiten da, komikian ahoz jarduten baitu, ez idatziz.</p>
<p>17. MOULÉFIX: <i>Moules et frites</i>, muskuiluak eta patata frijituak.</p>
<p>EN: Gastronomix.</p> <p>ES: Balduinix. Espikininglis izenaren kasu berbera da. Belgikarra denez Balduinix izena jarri diote, Balduin de Belgique Belgikako erregea izan baitzen 1951-1993 bitartean (Ruiza, M. et al., 2004).</p> <p>EUS: Balduinix, Moulefix, Mulefix. Lehen itzultzaileak gaztelaniazko bideari heldu dio.</p>
<p>18. PLANTAQUATIX: <i>Plante aquatique</i>, uretako landarea.</p>
<p>EN: Soporifix. <i>Soporific</i>, lo-eragilea.</p> <p>ES: Platanix. Ziurrenik platanotik dator. Kritika nahikoa eduki du izen honek, izan ere, beste istorio batzuetan Plantacuátix bezala itzuli da.</p> <p>EUS: Plantaquatix, Plantakuatix, Plantakuatix.</p>
<p>19. PLAZADETOROS: <i>Plaza de toros</i>, zezen-plaza.</p>
<p>EN: Neveratalos. <i>Never at a loss</i>. Inoiz ez geratu “x” gabe.</p> <p>ES: Sopaconondas. <i>Dar sopa con honda</i>. Gai edo jardun batean norbait baina askoz hobeza zarela adierazteko erabiltzen den esamoldea (López, 2017).</p> <p>EUS: Ogizopakon, Perukles, Perukles. Nabari da Ogizopakon gaztelaniazko izenaren antzekoa dela (sopa-zopa). Perikles pertsonaia greko bat izan zen. Peru (euskal izena) + Perikles = Perukles</p>
<p>20. PNEUMATIX: <i>Pneumatique</i>. Frantsesezko zenbait hiztegitan adjektibo gisa bakarrik jasotzen den arren (pneumatikoa, aireari edo gasi dagokiena), izen gisa ere jasotzen dute beste batzuek, posta zerbitzuekin loturik (Dictionnaires Le Robert, d.g., 2. definizioa). Komiki honetan nabarmena da postarekin duen lotura.</p>
<p>EN: Postaldistrix. <i>Postal districts</i>, posta bidaltzeko guneak.</p> <p>ES: Filatelix. <i>Filatélico</i>, filatelia posta-zigiluak bildu eta aztertzeko zaletasuna da.</p> <p>EUS: Pneumatix. Euskarazko bertsioan, frantsesez eta gaztelaniaz postari egiten zaion erreferentzia galdu egiten da, pneumatiko izenak, euskaraz, gurpilaren parte bat aipatzeko bakarrik balio baitu.</p>
<p>21. PROCESSUS: Latinezko izena da eta aurrerapena esan nahi du.</p>

<p>EN: Erroneus. <i>Erroneous</i>, okerra.</p> <p>ES: Procesus.</p> <p>EUS: Processus, Prozesus, Prozesus.</p>
<p>22. SCIPION: Pertsona historiko baten omenez jarritako izena.</p>
<p>EN: Scipio.</p> <p>ES: Escipión.</p> <p>EUS: Eszipione, Eszipion, Eszipion.</p>
<p>23. TRAGICOMIX: <i>Tragi-comique</i>, tragi-komikoa.</p>
<p>EN: Tragicomix.</p> <p>ES: Tragicomix.</p> <p>EUS: Tragicomix, Tragikomix, Tragikomix.</p>

2.1.3 Ondorioak

Ikusi ahal izan dugun bezala, bi protagonisten izenak, Asterix eta Obelix, hizkuntza guztietan berdin mantendu dira. Horren komiki bilduma ezaguna izanik, izenak aldatuz gero, irakurleentzat nahiko arraroa izango litzateke. Gainontzeko pertsonaien itzulpenean, hiru jarrera nagusi bereizten dira. Alde batetik, ingelesezko itzulpenak ditugu. Ingelesek euren hitz joko propioak sortu eta jatorrizko bertsiotik asko aldentzen diren itzulpenak sortu dituzte. Itxura denez, irakurleak erakartzeko hartu dute erabaki hori. Gaztelaniako bertsiotan, izen propioak sortu dituzten arren, jatorrizko bertsioko hitz jokoa mantendu dute gehienetan. Euskal itzulpenei dagokienez, forman zein sakoneko esanahian eutsi diete kasu ia guztietan izen originalei, nahiz eta ortografia egokitzapenak egin. Beraz, kasuan kasu hitz-jokoari eustea edo logika jarraituz izenak sortzea erabaki da, gehienetan hitz-jokoaren aldeko apustua egin bada ere. Hizkuntza orotan berdin mantendu dena izenen bukaera izan da. Komiki hauen esentzia izanik itzultzaileek errespetatu egin dute.

Hiru euskal itzulpenen artean ezberdintasunak aurkitu ditugu, batez ere lehenengo bertsiotik eta beste bien artean. 1976ko itzulpenean, ez da ortografia egokitzapen handirik nabari. Lehen aipatu bezala, euskara batua hamarkada bat beranduago normalizatu zen, beraz, zailtasun gehiago eta baliabide gutxiago zituzten

orduan itzultzaileek. Bestalde, frantsesezko “q” zein “c” aurkitzen ditugu itzulpenetan, seguraski oraindik atzerriko izenak transkribatzeko arauak ezarri gabe zeudelako.

Gainera, zenbait kasutan pentsatu daiteke lehen bertsio hau egiterakoan gaztelaniazko itzulpena ere izan zutela kontuan. Esaterako, *Plazadetos* izenarentzat *Ogizopakon* proposatzerakoan, gaztelaniazko izenaren hitzez hitzezkoarekin jokatu zuen itzultzaileak (sopa-zopa), esamoldearen sakoneko esanahia (zerbaitetan trebea izatea) bazter utzita, frantsesezko jatorrizkotik erabat aldentuta, bai forman, bai esanahian. *Balduinixen* kasuan ere, *Mouléfix* frantsesezko izenak duen esanahi gastronomikoa gorde beharrean, gaztelaniazko erabakia jarraitu eta pertsonaia belgikarra dela adieraztea erabaki du itzultzaileak. Horretaz gain, latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia (Euskaltzaindiaren 76. araua) 1977. urtean onartu zuten. Jendarteratu, noski, geroago egin zen. Hor jasotzen da, esaterako, Eszipion idatzi behar dela euskaraz. Horregatik ikusten dugu euskarazko lehen bertsioan Eszipione eta ez Eszipion.

Beste bi itzulpenetan ez dago horren aldaketa handirik. 1992ko itzulpenak aurretik azaldutako euskararen normalizazioa eta atzerriko izenak transkribatzeko araua ekartzen dizkigu gogora, bertsio horretan jada ez baitugu aurkitzen frantsesezko zein gaztelaniako grafia. 2014ko eta 1992ko bertsioen artean ez dago aldaketa nabarmenik; gehienetan itzultzaileek proposamen berberak plazaratu dituzte.

2.2 Onomatopeiak

Komiki askoren ezaugarri nagusia ahozko hizkuntza idatziz erreproduzitzen dutela izan ohi da, eta irakurtzerakoan, binetetan gertatzen dena entzuten dugula iruditzen zaigu. Zentzu horretan, ahozko hizkuntzaren funtsezko elementuetako bat onomatopeiak dira.

Alberto Zamboni hizkuntzalariaren arabera (1988, 234 or.), onomatopeia soinu natural bat imitatzearen ondorioz sortutako unitate lexikoa da (esaterako *tik-tak*, *kukurruku*). Imitazio ez-linguistikoa (esaterako oilarraren kantua erreproduktzioa) eta onomatopeia bereizi behar dira; azken hori zeinu linguistikoa da zentzu guztietan, hau

da, hizkuntzaren sistema fonologikoan adierazle batez hornituta dago eta morfologikoki emankorra da.

Betidanik onomatopeiez inguratuta egon bagara ere, ez dira inoiz sakonki ikertu eta ez dituzte oso kontuan izaten ez gramatiketan, ez hiztegietan, ezta eskuliburuetan ere. Interes faltarako arrazoietakoa bat gramatikalki sailkatzeko zailak direla izan daiteke, ahozko hizkuntzaren eta erregistro informalaren parte baitira. Hizkuntzalari batzuek, Mayoralek kasu (1992, 107-108 or.), arrazoitzen dute irudikapen grafikorako konbentzio argirik ez dagoela eta, gainera, maiz, onomatopeiak genero “kaskarrekin” lotzen direla, hala nola, komiki edo haur literaturarekin.

Nolanahi ere, onomatopeiak komunikaziorako elementu garrantzitsuak dira, eta gakoa dira gure hizkuntza(k) ikasteko prozesuan. Horren elementu garrantzitsuak izanik, beharrezkoa da ondo itzultzen jakitea.

Komikietan onomatopeiek garrantzia berezia dute, nolabait kontakizunaren “soinu-bandaren” osagarri baitira, eta itzultzailea egoera askotarikoen aurrean topatu daiteke (Montorio, 2005).

- Noizbehinka, onomatopeiak irudiaren barruan agertzen dira. Horregatik, itzultzaileak xede-hizkuntzara egokitzeke premia ikusten badu ere, ez da beti posible izaten.
- Gehienetan onomatopeiak bunbuiloen barruan kokatzen dira. Kasu horretan, itzultzailearentzat ezinbestekoa da espazio mugatu horretarako ordain egokia ematea.

Aipatu bezala, sarean ez dago onomatopeiak berariaz jasotzen dituen eskuliburu, gramatika edo hiztegirik. Horregatik, itzultzaile bakoitzak erabaki behar izaten du xede hizkuntzako ordainak nola eman. Itzultzaileek zenbait bide erabiltzen dituzte arazo horri aurre egiteko, eta hurrengo puntuan, euskarazko bertsioetan onomatopeiak itzultzeke erabili dituzten itzulpen estrategiak aztertuko ditugu.

2.2.1 Onomatopeien azterketa

Onomatopeien munduan dagoen hutsunea ikusita, interesgarria iruditu zaigu frantsesezko jatorrizko bertsioiko onomatopeiak euskaraz egindako itzulpenekin erkatzea. Euskarazko bertsioez gain, gaztelaniazko bertsioa erabiltzea erabaki dugu, gaztelaniak euskararengan izaten duen eraginagatik, eta azterketa egiterako garaian lagungarri izango zaigulakoan. Komiki osoan berrogei onomatopeiatik gora aurkitu ditugu, eta, lanaren luzera mugatuagatik, interesgarrienak aztertzea erabaki dugu. Bi multzo antolatu ditugu behaketa egiteko; alde batetik, barrea, eta bestalde, “lehen mailako” onomatopeiak (Ullmann, 1978). Barrea kasu gehienetan lehen mailako onomatopeia den arren, aparteko multzo batean sartu dugu, luzea delako horren azterketa. Gainera, taulez baliatu gara bisualki errazago ikusteko komiki bakoitzean erabili diren onomatopeiak.

2.2.1.1 Barrea

Abenturan zehar, barre motaren, intentsitatearen eta adierazi nahi denaren arabera hainbat onomatopeia erabili dira.

- **Barrez lehertzea, negar egiteraino** (8. or, 2. bineta).

Frantsesa	Gaztelania	Euskara 1976	Euskara 1992	Euskara 2014
HAHAHA	¡JA, JA, JA!	JA JA JA	JA JA JA!	KAR KAR
HOHOHO	¡JO, JO, JO!	JO JO JO	JO JO JO!	KAR KAR
HIHIHI	¡JI, JI!	JJ JJ!	JJ JJ!	KAR!

Komikian aurrerago, berriz ere *hahahaha!* erabiltzen da barrez lehertzea adierazteko. Baina, horretan, itzulpenetako bati onomatopeia ezberdina egotzi zaio (33. or, 6. bineta). Euskarako 1976ko bertsioan lehendabizi *ja ja ja* erabili da, agian gaztelaniako bertsioari jarraiki. Ondoren, aldiz, itzultzaileak *ha ha ha ha!* erabiltzea erabaki du, frantseseko idazketari eutsiz.

Frantsesa	Gaztelania	Euskara 1976	Euskara 1992	Euskara 2014
HA HA HA HA!	¡JA, JA, JA!	HA HA HA HA!	JA JA JA!	KAR KAR KAR!

- **Barre egitea, baina intentsitate gutxiagorekin** (8. or, 2. bineta).

Frantsesa	Gaztelania	Euskara 1976	Euskara 1992	Euskara 2014
HIHIHIHIHI!	¡JI, JI, JI!	HIHIHIHIHI!	JIJJI!	KAR KAR
HOUHOU!	¡JO, JO, JO!	HUHUUHU!	JUJUJU!	KAR!
HOUHOU!	¡JU, JU!	HUHUUHU!	JUJU!	KAR KAR
				KAR!
				KAR KAR!

Oraingo honetan, jatorrizko bertsioan Goscinyk *houhouhou!* erabili du barrea adierazteko. Arraroa dirudi orri berean bineta batzuk beherago (8. or, 11. bineta) onomatopeia berdinez baliatu izana txakurraren aiena adierazteko.

Frantsesa	Gaztelania	Euskara 1976	Euskara 1992	Euskara 2014
HOUHOUHOU!	¡GUAUUU!	GUAAAAUUUU!	JUJUJU!	AUUUUUUU!

Asterixek zuhaitz bat botatzen du eta Idefix txakurrari malkoak ikusten zaizkio (8. or, 7. bineta). Aurreko patroia jarraituz, pentsatu liteke barrea adierazi nahi dela eta horregatik dituela malkoak. Gainera, euskarako 1992ko itzulpenean *jujujuju!* erabili da, eta normalean barrearen adierazgarri izaten da. Baina, irakurleok badakigu Idefix txakur ekologista dela eta zuhaitz bat mozten duten bakoitzean penaz ulu egiten duela (komikiaren hasierako deskribapenean agertzen baita). Jatorrizko bertsioan ulua eta barrea adierazteko onomatopeia berdina aukeratu bada ere, itzultzaile gehienek ezberdindu egin dituzte.

Orri batzuk lehenago, basoan dabiltzala, Obelixek beste zuhaitz bat botatzen du, eta Idefixek beti bezala negar egiten du (5. or, 9. bineta).

Frantsesa	Gaztelania	Euskara 1976	Euskara 1992	Euskara 2014
HOUHOUHO	¡BUUU!	HOUHOUHO	BUHUHUHU	AUUUUUUU!
	¡BUUUUU!			
	¡BUUUU!			

Jatorrizko onomatopeiak ia berdinak izanik ere, itzultzaileek orri ezberdinetan itzulpen oso ezberdinak eman dituzte, onomatopeiek kasu bakoitzean islatu nahi duten sentimendua xede hizkuntzan ahalik eta egokien jasotzeko asmoz.

HOUHOUHOU!	HOUHOUHO
¡GUAUUU!	¡BUUU! ¡BUUUUU! ¡BUUUU!
GUAAAAUUUU!	HOUHOUHO
JUJUJU!	BUHUHUUHU
AUUUUUUUUU!	AUUUUUUUU!

- **Barre ñimiñoa**

Asterixek Obelixi maitemindurik ote dagoen galdetzen dionean, Obelix lotsagorritu egiten da eta barre ñimiñoa irteten zaio (8. or, 7. bineta). Hori adierazteko ere *houhouhou* erabiltzen da jatorrizko testuan.

Frantsesa	Gaztelania	Euskara 1976	Euskara 1992	Euskara 2014
HOUHOUHOU	¡JUJUUU!	HUHUUUUHU	JU JU JU	UJUJUJUJUJU!

Beraz, ikus daiteke *houhouhou* barre mota ezberdinak adierazteko erabili dela jatorrizko testuan, baita negarrarentzat ere.

- **Barrearen bidez burla egitea**

Asterix legioan dagoenean sukaldariari esaten dio prestatzen duen janaria txarra dela. Sukaldariak haren kontura barre egiten du (25. or, 3. bineta).

Frantsesa	Gaztelania	Euskara 1976	Euskara 1992	Euskara 2014
HO HO HO!	¡JO, JO, JO!	HO HO HO!	JO JO JO!	KAR KAR KAR!

Euskarazko itzulpenetan, aurreko adibideetan ikusitako bide berberak jarraitu dituzte itzultzaileek: 1976ko bertsioan, jatorrizkoa gorde da, grafia berberarekin, 1992koan grafia egokitu da (h→j), eta 2014koan Akademiak finkatutako onomatopeiari eutsi zaio (Kar-Kar!).

- **Harrotasuna adierazten duen barrea**

Asterixek Obelixi ideia bikain bat ematen dio, eta Obelixek oso argia dela esaten dio. Bota dion lore horrengatik, Asterixek harrotasuna eta poztasuna erakusten du barre txiki batez (9. or, 3. bineta).

Frantsesa	Gaztelania	Euskara 1976	Euskara 1992	Euskara 2014
HÉ! HÉ!	¡JE, JE...!	HE! HE!	JE! JE!	JE! JE!

Berriz ere 1976ko itzulpenean jatorrizko bertsioko onomatopeia bera erabili da. 1992koan “j” erabili da, eta 2014ko bertsiotan *kar kar kar* alde batera utzi eta *je!je!* erabili da.

2.2.1.2 Lehen mailako onomatopeiak

Stephen Ullmanek, bere tratatuko 4. kapituluan (1978, 93-104 or.), lehen mailako eta bigarren mailako onomatopeiez dihardu. Haren esanetan lehen mailako onomatopeiak imitazio hertsiki akustikoak dira. Adibide asko topatzen ditugu gure komikietan⁵.

Frantsesa	Gaztelania	Euskara 1976	Euskara 1992	Euskara 2014
TCHOC!	¡TCHOC!	TCHOC!	TXOK!	TXOK!
TCHRRÂÂC!	¡TCHRRRAAC!	TCHRRRAAC!	TXRRRAAK!	TXRRRAAK!
CRRRÂÂC!	CRRRAAAC!	CRRRAAAC!	KRRRAAAK!	KRRRAAAK!
SCRONTCH!	SCRONTCH!!	SCRONTCH!	SKRONTX!	SKRONTX!
SCRITCH	SCRITCH	SCRITCH	SKRITX	SKRITX!

Itzulpenek berdinak diruditen arren, zenbait xehetasun aldatzen direla ikus dezakegu. Kasu gehienetan xede hizkuntzako araei jarraitzen diete. Gaztelaniazko bertsiotan, hasierako eta bukaerako harridura ikurrak erabiltzen dira orokorrean, nahiz

⁵ Tchoc! 10. or, 7. bineta; Tchrrâc! 45. or, 5. bineta; Crrrâc! 5. or, 5. bineta; Scrontch!, Scritch 31. or, 6. bineta.

eta, taulan ikusten den bezala, hainbat salbuespen egon; euskarazkoetan aldiz, arauetara hertsiki jarraitu eta bukaerako harridura ikurrari bakarrik eusten zaio.

Chapmanek esan bezala (1984, 39 or.):

Onomatopoeic formations as we now have them use the existing phonemic system of the language in which they occur. When they are given written form, it is with regard to what the letters composing them most commonly represent, and with some sense of the combinations and sequences of vowels and consonants normally acceptable within the code.

Zentzu horretan, euskal bertsioan ortografia aldaketak antzematen dira bi bertsio berrietan. “C” letra erabili beharrean “k” letra erabiltzen dute eta “ch” beharrean “tx”. 1976ko itzulpenean ez dira “k” eta “tx” letrak erabiltzen. Goian azaldutako euskara batu berantiarrak eta euskararen normalizazio ezak dute ziurrenik eragina horretan. Antzina, erdal letra horiek erabiltzen ziren euskaraz, baina gaur egun euskal alfabetoaren parte badira ere, bakarrik kanpoko hitzak idazteko erabiltzen dira.

Zenbait itzulpenetan, jatorrizko onomatopeien antzeko bertsioak edo bertsio berberak eman dira⁶.

Frantsesa	Gaztelania	Euskara 1976	Euskara 1992	Euskara 2014
BOUM!	¡BOUM!	BOUM!	BOUM!	BUM!
BANG!	¡BANG!	BANG!	BANG!	DANBA!
PLOUF!	¡PLOUF!	PLOUF!	PLOUF!	PLUF!
BAFFF!	¡BAFFF!	BAFFF!	BAFFF!	ZAPLA!

Adibide horietan ikusten den bezala, gaztelaniazkoan eta euskarazko lehen bi bertsioetan joera berbera jarraitu da, jatorrizko grafiari heltzea, nahiz eta soinu bera ez islatu hizkuntza batean eta besteetan. Euskarazko bertsio berrienean, ordea, batzuetan jatorrizko soinua islatzen den arren, euskal grafiara egokitzen da (*bum!*, *pluf!*), eta beste batzuetan euskaraz hedatuta dauden onomatopeiak erabiltzen dira (*zapla!*, *danba!*).

⁶ Boum! 5. or, 5. bineta; Bang! 16. or, 8. bineta; Plouf! 25. or, 9. bineta; Bafff! 25. or, 8. bineta.

Beraz, euskararen garapenaren eta normalizazioaren bidean, euskarak bere onomatopeia propioak sortzen dihardu.

2.2.2 Ondorioak

Jatorrizko frantsesezko bertsioaren ondoan, gaztelaniazko eta euskarazko bertsioak alderatu ahal izan ditugu. Chapmanek dioen moduan, hizkuntzaren arabera onomatopeiek aldaketak izan ditzakete (1984, 40 or.):

Since words of this type are adapted into the phonemic and orthographic resources of the language, they are likely to take varied forms in different speech-communities. Things heard are converted into the shared code, so that a study of comparative onomatopoeia reveals both the common quality of human auditory perceptions and also the differences between their realizations.

Baina, ikusi dugu teoria hori hizkuntza ezberdina duten komunitateen artean ez ezik hizkuntza bera hitz egiten duten hiztunen artean ere gerta daitekeela. Aldaketa oso nabariak daude aztertu ditugun euskal itzulpenen artean, baina bi joera nagusi bereizten dira.

1. Alde batetik, 1976ko eta 1992ko argitalpenak itzuli dituzten itzultzaileek ildo berari jarraitu diote. Biek frantsesezkoak islatzen dituen soinuak euskaraz bere horretan jaso nahi izan dituzte, horregatik, ez dira jatorrizko bertsiotik aldendu. Hala ere, bien arteko ezberdintasun bat azpimarratu behar da: 1976ko bertsioan frantsesezko soinua gordetzen da ortografia euskarara egokitu gabe (adibidez *hahahahaha!=hahahahaha! / houhou!=huhuhu!*, kasu hauetan, h-a mantentzen da); 1992ko bertsioan aldiz, frantsesezko soinuari eusten bazaio ere, kasu gehienetan ortografia euskarara egokitzen da (adibidez *hahahahaha!=jajaja! / houhou!=juju!*).
2. Bestalde, 2014ko itzultzaileak aurreko bi itzultzaileen jaidura hautsi eta euskaraz finkatuta dauden onomatopeiak erabili ditu, horien artean esaterako *kar kar kar*. Hala ere, antzeman bezala, ez du kasu guztietan onomatopeia hori erabili.

Bi joera horiek zergatik ematen diren aztertzerakoan, zenbait konklusiotara iritsi gara.

1976ko bertsioari dagokionez, frantsesezko ortotipografiari eustea euskara batuaren garapen eskasaren ondorio izan daiteke. Hasieran izendatu bezala, euskara batu berantiarrak urteak behar izan zituen normalizatzeko. Euskara batua 1968an finkatu bazen ere, 1991 arte ez zen Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua sortu, euskararen erabilera arautzen duen eta gomendioak ematen dituen hiztegia. Bada, 1976an oraindik ez zegoen batere garatuta eta normalizatuta euskara batua, horregatik jarraituko zion ziurrenik itzultzaileak frantsesezko ortografiari.

Onomatopeien munduan hiztegi edo liburuxka ofizialik ez badago ere, hainbat hiztegitan zenbait onomatopeia biltzen dira. Esan beharra dago onomatopeiak hizkuntza batean finkatzeko modu egokiena hizkuntza horretako barne produkzioa dela. Euskaraz sortutako edo euskarara itzulitako material asko egongo balitz (komikiak barne), onomatopeiak ugariagoak izan eta finkatu egingo lirateke. Beraz, euskarara itzultzeko edo euskaraz sortzeko ohitura falta horrek eraginda, gabezia eta hutsune handia dago hizkuntza barruan, ondorioz, askotan, jatorrizko bertsioko onomatopeiekin egiten dugu topo itzulpenetan.

Komikigintzari dagokionez, onomatopeien mundua araututa egon badaiteke ere, egile bakoitzaren arabera da itzulpena, eta egile berak erabakitzen du zein onomatopeia erabili edota zein onomatopeia sortu. Komiki bakoitzeko ñabardurak komikigile bakoitzaren esku daude. Horregatik, hogeita hemezortzi urtetan euskarazko hiru itzulpen guztiz ezberdin ikus ditzakegu.

2.3 Erreferente kulturalak

Itzulpengintzak kulturen arteko zubiak eraiki behar dituen bezala, eta ez bakarrik hizkuntzen artekoak, berariaz jorratu beharreko alorra izaten da erreferente kulturalena; izan ere, Mangironek dioen bezala “les referències culturals presents en un text que al·ludeixen a una cultura determinada i aporten significat, expressivitat o color local (o una combinació de tots ells)” (2006, 36 or.). Jatorrizko testuaren eta itzulpenaren testuinguruaren arabera, elementu horiekin nola jokatu erabaki beharko du itzultzaileak:

nolabaiteko “atzerritartasun kutsua” gorde, edo “etxekotu”; sorburu kulturako irakurleengan sor dezakeen eragina bilatu, edo hitzezko adierazpenari gehiago heldu. Horregatik, itzultzaileek bai jatorri bai xede hizkuntzako kulturak eta ohiturak oso ongi ezagutu behar dituzte, aukeratuko dituzten ordainak egokienak izan daitezten lortu nahi duten eraginerako.

Aurrera jarraitu baina lehen, aipatu beharra dago “erreferente kultural” esamoldea erabiliko dugula gure gertuko erdaretan *références culturelles*, *referencias culturales*, *elementos culturales* edo *culturemas* esamoldeez adierazten diren horiek izendatzeko. Zenbait adituk ez dituzte izendapen horiek guztiak sinonimotzat jotzen, baina guk honoko bi definizioetan azaltzen dena izendatuko dugu “erreferente kultural” esamoldearekin.

Luquek dio:

Un referente cultural puede ser cualquier ítem simbólico que por distintas razones haya llegado a tener una relevancia especial en la lengua y sea utilizado como moneda de cambio por parte de los hablantes en su comunicación oral o escrita (2009, 96 or.).

Molinaren arabera, aldiz:

Entendemos por culturema un elemento verbal o paraverbal que posee una carga cultural específica en una cultura y que al entrar en contacto con otra cultura a través de la traducción puede provocar un problema de índole cultural entre los textos origen y meta (2006, 79 or.).

Rosa Agostek erreferente kulturalen itzulpenaz dihardu, besteak beste, *Traducción y doblaje: palabras, voces e imágenes* liburuan, eta bertan azaltzen du itzultzaileen erabaki nagusietako bat izan ohi dela erreferente kulturalak bere horretan gordetzea edo xede kulturara egokitzea. Kasu batzuetan ez da aparteko arazorik egoten, bai jatorrizko kulturak bai xede kulturak erreferenteak partekatzen dituztelako, edo kultura-elementu horiek, jatorrizko kulturarenak izan arren, xede-kulturan oso ezagunak direlako (Agost, 1999).

Nolanahi ere, kasu anitzetan zailtasunak egoten dira egokitzapenean. Hiru euskal itzultzaileek egin dituzten proposamenak aztertzeko, Hurtadok (2001, 633-645 or.) egindako itzulpen tekniken sailkapenaz baliatu gara. Molinak 2006an sailkapen hori egokitu egin zuen, baina aldaketak oso xumeak dira. Hona hemen itzulpen teknika horien zerrenda:

- **Aldakuntza:** aldaera linguistikoari eragiten dioten elementu linguistikoak (edo paralinguistikoak: intonazioa, keinuak) aldatzea. Aldaketa horiek izan daitezke: tonua, estiloa, dialekto soziala, dialekto geografikoa, etb.
- **Baliokide finkatua:** xede hizkuntzan baliokidetzat onartutako (hiztegiak edo hizkuntza-erabilerak) termino edo esamolde bat erabiltzea.
- **Deskribapena:** termino edo adierazpen baten ordeztu, haren forma eta/edo funtzioa deskribatzea.
- **Egokitzapena:** jatorrizko kulturako elementu bat xede kulturako elementu propio batekin ordezkatzeko.
- **Elisioa:** jatorrizko testuko informazio-elementuren bat ez azaltzea. Zabalkuntza deritzon teknikaren kontrakoa da.
- **Itzulpen literala:** sintagma edo adierazpen bat hitzez hitz itzultzea.
- **Kalkoa:** atzerriko hitz edo sintagma bat (lexiko edo estrukturala) modu literalean itzultzea.
- **Konpentsazioa:** jatorrizko testuan kokatuta dagoen leku berean adierazi ezin izan den informazio-elementua edo efektu estilistikoa xede testuaren beste leku batean kokatzea.
- **Mailegua:** beste hizkuntza bateko hitz edo esamolde bat aldaketarik egin gabe erabiltzea. Garbia (aldaketarik gabea) edo bertakotua (atzerriko hizkuntzaren transliterazioa) izan daiteke.
- **Modulazioa:** jatorrizko testuaren formulazioari dagokionez, ikuspuntua edo pentsamendu kategoria aldatzea. Aldaketa lexikala edo estrukturala izan daiteke.
- **Orokortzea:** termino orokorrak edo neutroak erabiltzea. Zehaztasuna deritzon teknikaren kontrakoa da.
- **Sorkuntza diskurtsiboa:** testuingurutik kanpo aurreikusi ezin den baliokidetasun iragankor bat ezartzea.
- **Transposizioa:** kategoria gramatikala aldatzea.

- **Trinkotze linguistikoa:** hizkuntza elementuak sintetizatzea. Zabalkuntza linguistikoa deritzon teknikaren kontrakoa da.
- **Zabalkuntza:** jatorrizko testuan existitzen ez diren zehaztasunak sartzea (informazioa, azalpen-parafraasiak, autorearen oharrak, etb.). Elisioa deritzon teknikaren kontrakoa da.
- **Zabalkuntza linguistikoa:** elementu linguistikoak gehitzea. Trinkotze linguistikoa deritzon teknikaren kontrakoa da.
- **Zehaztasuna:** termino zehatzagoak eta konketuagoak erabiltzea. Orokortzea deritzon teknikaren kontrakoa da.

Hurtadoren zerrenda oso zabala den arren, teknika guztiak ez dira egokiak komikien itzulpenetarako, esaterako zabalkuntza eta deskripzioa, espazio mugatu batera egokitzea eskatzen baitu komikietako itzulpenak. Era berean, Asterixen komikiak ume eta gazteentzat ere badiren komikiak izanik, Agostek aipaturiko “kultur-egokitzapenaren” estrategiari hoberen erantzuten dioten teknikak nagusituko dira ziurrenik, batez ere egokitzapena, testua ahalik eta gehien hurbiltzeko xede kulturako hartzaile gazteengana.

2.3.1 Erreferente kulturalen azterketa

Gehiago luzatu gabe, itzulpenetan topatutako erreferente kulturalak aztertzen hasiko gara. Itzultzaileek proposatzen dituzten ordainetatik abiatuta, zer teknika erabili dituzten aztertuko dugu.

- **Latinezko esamoldeak**

Asterixen komikietan latinaren keinu asko ageri dira. Goscinnyren keinu horiek beti, edo ia beti, mantendu dira itzulpenetan, **mailegu garbiak** izanik.

or.	JB	BI 1976	BI 1992	BI 2014
39	Dignus est intrare	Dignus est intrare	Dignus est intrare	Dignus est intrare
42	Alea jacta est	Alea jacta est	Alea jacta est	Alea jacta est
42	Cogito, ergo, sum	Cogito, ergo, sum	Cogito, ergo, sum	Cogito, ergo, sum

- **Janaria**

Gastronomiari dagokionez, frantsesentzat oso ohikoak diren platerak aipatzen dira. Lehenengo adibidean, “*gâteau a la crème*” erabiltzen da jatorrizko komikian. 1976ko itzultzaileak “ahi azukratuak” erabiltzea erabaki du eta 1992koak “mamia”. Biek **egokitzapen teknika** erabili dute. 2014ko itzultzaileak aldiz, jatorrizko bertsioari eutsi eta **itzulpen literala** “kremazko pastela” egitea erabaki du.

or.	JB	BI 1976	BI 1992	BI 2014
31	Gâteau a la crème	Ahi azukratuak	Mamia	Kremazko pastela

Bigarrenengo adibide honetan, sukaldariak “*crêpes flambées*” egingo dituela agertzen da jatorrizko bertsioan. Euskal itzultzaileei ez zaie garrantzitsua iruditu sukaldaria zer prestatzen ari den aipatzea, horregatik **elisio teknikari** jarraiki, informazio hori ezabatu dute.

or.	JB	BI 1976	BI 1992	BI 2014
36	Le cuisinier de quoi faire des crêpes flambées...	Sukaldaria afaria ipintzen...	Sukaldaria gaueko menuarekin lanpetuta dabil...	Sukaldaria, bazkaria prestatzeko osagai bila...

- **Abestiak**

Abestiak kulturaren adierazgarri garrantzitsuak dira. Horregatik, lehen adibide honetan itzultzaileek euskal kanta erabiltzea erabaki dute (**egokitzapen teknika**). Testuingurua arraunean ari direla izanik, 1976ko eta 2014ko bertsioetako itzultzaileek “Boga, boga, mariñela” abestia erabili dute. 1992ko itzultzaileak, aldiz, “Ameriketara joan nintzan” abestia hautatu du, baina egokituta, “Amerika” baztertu eta “Erroma” erabiliz, erromatarren testuingurura egokitzeko.

or.	JB	BI 1976	BI 1992	BI 2014
34	Tu te souviens des beaux	Boga... boga... boga marinela!...	Erromara joan nintzen	Boga, booogaaa, marinelaaaak...

	dimanches, quand tu mettais ta tige blanche...	Marinela...	xentimorik gabeeeee...	
--	--	-------------	------------------------	--

Bigarren adibide honetan aldiz, arropa garbitzen ari den zenturioi bat “*Les lavandières du Portugal*” kanta abesten ari da, “Portugal” erabili ordez “Lusitanie” izeneko erromatar probintzia erabiliz. Itzultzaileek euskal abesti bat hautatu beharrean, jatorrizko bertsoari eutsi eta nahiko hitzez hitzeko itzulpena egin dute, nahiz eta 1976ko bertsoan “tap, tap, tap” “maite, maite” azken hitzaren errepikapenagatik aldatu, euskal abestietan ohikoagoa dena. 1992ko itzulpenak ere antzeko bidea hartzen du, baina euskaraz ohikoagoa den “larai, larai” erabilita. Beraz, itzultzaileek **kalkoa** izeneko itzulpen teknika baliatu dute.

or.	JB	BI 1976	BI 1992	BI 2014
16	Les lavandières de Lusitanie, et tap, et tap, et tap...	Ai Lusitania zergatik zaitut maite, maite...	Lusitaniako garbitzaileak, larai, larai, larai...	Lusitaniako garbitzaileak, eta tap, eta tap, eta tap...

- **Txistekak**

Umorea ez da beti itzultzeko erraza izaten. Kasu honetan frantsesezko bertsoian arraunean ari direla “*Rome*” (Erroma) eta “*rame*” (arrauna) hitzak fonetikoki oso antzekoak direla kontuan hartuta txiste bat egiten du arraunlari batek. Euskaraz bi hitz horiek elkarren guztiz desberdinak direnez, itzultzaileek bestelako txiste batzuk egitea erabaki dute (**egokitzapena**).

or.	JB	BI 1976	BI 1992	BI 2014
34	Tous les chemins mènent à rame... à rame... ça est un bon mon... à rame!	Erromatarrak garen bezala. Erroman erromeria egingen dugu. Erramu-egunean. Hou hou	Hau hezurretako mina! Erroma eta erremua ez duk berdina, mutilak! Jo, juo, juo!	Bai bidaia erroma...ntikoa! Kar, kar, kar!

Beste adibide honetan ere **egokitzapen teknikari** jarraituz erromatar batek egindako txistea euskarara moldatu dute itzultzaileek.

or.	JB	BI 1976	BI 1992	BI 2014
30	Et celle-ci? J'ai un accroc... pole a ma tunique!	Eta beste hau? Honen azkar joanik ez dugu "pauaije" ikusiko!	Zuri "Grezia" egin al dizu? Ba, buruzagiei "Atenas"	"Grezia" egin al dizu? Buruzagiei "Atenas"

- **Orokortzea**

Kasu gutxi batzuetan, itzultzaileek jatorrizko bertsioari gertutik eutsi beharrean termino orokorragoak erabili dituzte, orokortze teknikari jarraiki. Jatorrizko bertsioan *gladius* (hortik dator gladiatore izena) izeneko ezpata mota erabiltzen dutela ageri da, erromatar legioek erabiltzen zutena. 1976ko eta 1992ko bertsioetan bakarrik ezpata aipatzen da, gladius motakoa dela alde batera utzita. 2014ko bertsioan aldiz, gladius motakoa dela ageri da.

or.	JB	BI 1976	BI 1992	BI 2014
27	Maintenant, nous allons nous exercer avec le gladius... l'épée...	Orain ezpatarekin praktika dezagun...	Orain ezpatarekin ihardungo dugu pixkat...	Orain, gladiusarekin egingo ditugu ariketak, ezpatarekin...

- **Poil à** (poil = ilea)

Kultura frantsesaren parte den hitz jokoa da. TLFi hiztegiaren arabera: *Poil(s) à* esamoldearen ondoren substantibo bat jarri ohi da eta substantibo horrek gorputzaren atal bat adierazten du, aurreko esaldiko azken hitzarekin errimatuz. Askotan umeek edo nerabeek erabiltzen dute, jolas moduan edo hitz egiten ari den pertsonaz barre egiteko (CNRS eta Université de Lorraine, d.g.). Komikian, efektu komikoa areagotzeko erabiltzen da, burlazko hitz joko horretan erabiltzen den *poil* hitzaren adiera nagusiaren

esanahia gehituz: *poil à* (hitz jokoa) + *nez* (marraskia ikusita ulertzen dena) = *poil au nez*.

1976ko bertsioan **modulazio teknika** jarraitu eta gorputzen atalak mantenduz errimak sortu ditu itzultzaileak. 1992ko bertsioan aldiz, **egokitzapen teknikari** eutsi zaio eta hiru kasuetan “zakurraren bibolinak” erabili da. Azken bertsioan aldiz, **itzulpen literala** egin du itzultzaileak.

Binetetan bekainen, sudurraren zein eskuen irudiak ageri dira, beraz, 1992ko bertsioko itzultzaileak hartu duen erabakiak ez dirudi oso egokia, ez baitago konkordantziarik esaten denaren eta irudien artean. Hori da komikien eta ikus-entzunezko itzulpenen ezaugarrietako bat, itzulpenetan ematen diren ordainek bat etorri behar baitute irudiekin.

or.	JB	BI 1976	BI 1992	BI 2014
33	Poil aux sourcils.	Bekainak bikainak!	Zakurraren bibolinak.	Bekain iletsuak.
33	Poil au nez.	Sudurrak zuhurrak.	Zakurraren bibolinak.	Sudur iletsua.
34	Poils aux mains!	Eskuak freskuak hahaha!	Zakurraren bibolinak!	Esku iletsuak!

2.3.2 Ondorioak

Itzulpen guztiak aztertu eta gero, ondorioztatu dezakegu teknika erabiliena egokitzapena dela, hau da, etxekotzeko joera dago. Lehen aipatu dugu ziurrenik kultur egokitzapena izango zela estrategia erabiliena, eta halaxe izan da. Publiko zabala eduki arren, irakurle gehienak etxeko gaztetxoak izanik, testua euren hizkuntzara ahalik eta gehien hurbiltzen saiatu dira. Baina azpimarratzekoa da teknika hau erabiliz kulturako zenbait elementu galdu direla. Kasu batzuetan, jatorrizko kultura ondo ez ezagutzeagatik ez da ondo antzeman kultura elementua, eta kalkora jo da. Nolanahi ere, abesti guztiak (*Les lavandières du Portugal/Lusitanie* izan ezik) egokitu dira, eta itzultzaileek oso ondo jakin izan dute umorezko tonua mantentzen.

Bromen kasuan ordea, itzultzaileek ez dute beti asmatu umore hori modu egokian islatzen. *Poïl à* eraketak, gure hizkuntzan existitzen ez denez, zailtasuna areagotu du, eta nabarmena da itzulpenetan. 1976ko bertsioan, errimak egitea lortu bada ere, ilearekiko jokoa galdu da. 1992ko itzulpenean zakurraren bibolinak erabili da kasu guztietan, eta ulermena oztopo ez den arren umorea guztiz galdu da. 2014ko bertsioan itzulpen literala egin da, eta kasu horretan ere umorea galdu da.

Hiru euskal itzulpenei helduz, ez da horren nabaria pertsonaien izenen nahiz onomatopeien atalean aipatutako euskararen garapena. Bertsio batetik bestera dauden aldaketak ez dira ortografikoak, baizik eta itzultzaile bakoitzaren baitakoak. Orokorrean, agian esan daiteke 2014ko bertsioan itzultzaileak jatorrizko formari gertuagotik eutsi diola (beste bi bertsioekin alderatuz) eta itzulpen literala gehiago erabili duela, baina, zaila da orokortzea.

Erreferenteen mundua horren konplexua izanik, ezin esan daiteke kulturen arteko muga gainditzeko irtenbide bat edo beste jarraitu behar denik. Kulturen esentzia beti bera den arren, gauza asko aldatzen doaz, eboluzioarekin batera; horregatik, itzulpenak ere aldatzen doaz.

3. Ondorio orokorrak

Azterketarako hautatu ditugun ataletako bakoitzean jaso ditugu horiei buruzko ondorioak, eta, behin lan osoa bukatuta eta ondorio partzial horiek kontuan hartuta, zenbait konklusio nagusi azpimarratu nahiko genituzke:

- Hasieran planteatu dugu horren denbora gutxian komiki beraren hiru euskal itzulpen argitaratzeak euskararen beraren eta euskal hiztunen komunitatearen egoerarekin zerikusia izan zezakeela, eta, hori baieztatzeko datuak eskaini dizkigu azterketak. Ezberdintasun argiak daude ortografiari zein gramatikari begira bertsioen artean, batez ere lehenengoaren eta bigarrenaren artean. Oso nabarmena da hori, esaterako, izenen atalean ikusi dugun *Scipion* pertsonaia historikoaren izena transkribatzerakoan, Euskaltzaindiak hori arautu ondoren, itzulpen berriek akademiaren esanari jarraitu baitiote.

- Kontuan hartu ditugun itzulpen guztiei erreparatuta (euskarazkoak, gaztelaniazkoa eta ingelesezkoa), argi geratzen da estrategia nagusi berbera, etxekotzea, oso modu eta maila desberdinetan gauzatu daitekeela itzulpenean. Hala, pertsonaien izenen itzulpenean esaterako, ingelesek batez ere, euren izenak sortu dituzte, jatorrizko bertsioarekin zerikusirik ez daukatenak, ez fonetikoki ezta esanahiaren aldetik. Euskarazko eta gaztelaniazko itzulpenetan, bigarren mailako pertsonaien izenetan bakarrik jarraitu da bide hori, eta pertsonaia nagusien kasuan beti bilatu da jatorrizkoaren fonetikatik gertu egotea.
- Erreferente kulturalen kasuan ere ikus daiteke estrategia berberak emaitza askotarikoak eskain ditzakeela, komikian agertzen diren abestietan antzematen den moduan: hiru euskal itzultzaileek kantak egokitu dituzte, baina ez dute xede kulturako erreferente bera erabili. Honi dagokionez, oso interesgarria litzateke aztertzea zein puntutaraino eragiten duten itzulpen bakoitzaren garaiko ohitura eta erreferenteek euskal ordaina ematerakoan, baina horri buruzko ondorio argi bat ateratzeko corpus zabalago bat aztertu beharko litzateke.
- Itzulpenetan bi joera orokor bereiz daitezkeela esan dezakegu. Batetik, jatorrizko bertsioari, forman zein esanahian, eusten dioten itzultzaileak ditugu (esaterako, euskarako 1976ko itzultzaileak joera hori eduki du). Askotan nahiago dute gure hizkuntzako elementuren batekin ordezkatu beharrean, jatorrizko hitz edo hitz jokoari eustea. Kasu bakan batzuetan horrek ulermen arazoak ekar ditzakeela ikusi ahal izan dugu. Bestalde, elementuak gure hizkuntza eta kulturara moldatzen dituzten itzultzaileak ditugu. Zenbaitetan jatorrizko esamoldea erakargarriagoa den arren, nahiago dute ulergarritasuna bermatu, eta kultur eta hizkuntza egokitzapenera jotzen dute.

4. Bibliografia

Agost, R. (1999). *Traducción y doblaje: palabras, voces e imágenes*. Ariel.

Cambridge University Press. (d.g.). Vital statistics. In *Cambridge Dictionary*. 2021eko maiatzaren 10ean hemendik eskuratua: <https://dictionary.cambridge.org/es/diccionario/ingles/vital-statistics>

Campese, S. (2015eko urriaren 27a). Que signifient les noms Astérix et Obélix? *Projet Voltaire*. <https://www.projet-voltaire.fr/origines/signification-nom-asterix-obelix/>

Chapman, R. (1984). *The Treatment of Sounds in Language and Literature*. Blackwell.

CNRS eta Université de Lorraine. (d.g.). Poil(s) à. In *Trésor de la langue Française informatisé (TILFi)*. 2021eko maiatzaren 5ean hemendik eskuratua: <http://stella.atilf.fr/Dendien/scripts/tlfi5/visusel.exe?12;s=2590373130;r=1;nat=:sol=1;>

Dictionnaires Le Robert. (d.g.). In *Dico en ligne Le Robert*. 2021eko maiatzaren 29an hemendik eskuratua: <https://dictionnaire.lerobert.com/definition/pneumatique>

Esteban, D. (2017ko urriaren 25a). Veni, vidi, traduci: nombres propios en los cómics de Astérix. *Yentelman*. <https://www.yentelman.com/veni-vidi-traduci-nombres-proprios-comics-asterix/>

Euskaltzaindia. (1997). 76. araua. *Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia*. 2021eko maiatzaren 11an hemendik eskuratua: http://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0076.pdf

Euskara Institutua, EHU. (d.g.). *Euskararen egoera gizartean*. Sareko Euskal Gramatika. <https://www.ehu.eus/seg/gizt/1>

Gómez, M eta Gómez, P. (d.g.). *Galos, romanos y otras gentes*. ¡Acepta el reto! <https://www.aceptaelreto.com/problem/statement.php?id=334>

Gosciny, R. eta Uderzo, A. (1967). *Astérix légionnaire*. Hachette. (Lan honetarako erabili den alea 1999an argitaratutakoa da).

- Gosciny, R. eta Uderzo, A. (1967). *Asterix the legionary*. (A. Bell eta D. Hockridge, Itzul.). Hodder eta Stoughton.
- Gosciny, R. eta Uderzo, A. (1969). *Asterix legionario*. (J. Perich, Itzul.). Grijalbo/Dargaud.
- Gosciny, R. eta Uderzo, A. (1976). *Asterix lejionarioa*. Mas-Ivars.
- Gosciny, R. eta Uderzo, A. (1992). *Asterix legionaria*. (J. Azurmendi, Itzul.). Elkar, Grijalbo-Dargaud, Junior. (Lan honetarako erabili den alea 1995an argitaratutakoa da).
- Gosciny, R. eta Uderzo, A. (2014). *Asterix lejionarioa*. (U. Lasa, Itzul.). Salvat, Bruño.
- Hurtado, A. (2001). *Traducción y traductología: Introducción a la traductología*. Cátedra.
- Koch, T. (2019ko urriaren 30a). Astérix, seis décadas de resistencia. *El País*. https://elpais.com/cultura/2019/10/29/actualidad/1572370966_071698.html
- Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera. *Boletín Oficial del País Vasco*, 160, de 16 de diciembre de 1982. <https://www.boe.es/eli/es-pv/l/1982/11/24/10/con>
- López, A. (2017ko abuztuaren 28a). ¿Qué significa la expresión “dar sopas con honda”? *20 minutos*. <https://blogs.20minutos.es/yaestaellistoquetodolosabe/que-significa-la-expresion-dar-sopas-con-honda/#:~:text=Por%20lo%20tanto%2C%20'dar%20sopas,y%20superioridad%20en%20un%20asunto>.
- Luque, L. (2009). Los culturemas: ¿unidades lingüísticas, ideológicas o culturales? *Language Design*, 11, 93-120. http://elies.rediris.es/Language_Design/LD11/LD11-05-Lucia.pdf
- Mangiron, C. (2006). *El tractament dels referents culturals a les traduccions de la novel·la Botxan: la interacció entre els elements textuals i extratextuals*

[Doktoretza tesia, Universitat Autònoma de Barcelona].
<http://hdl.handle.net/10803/5270>

Mayoral, R. (1992). Formas inarticuladas y formas onomatopéyicas en inglés y español. Problemas de traducción. *Sendebarr*, 3, 107-108.

Montorio, B. (2005). Komikien itzulpena. *Senez*, 28, 105.
<https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20051219/komikia>

Molina, L. (2006). *El otoño del pingüino. Análisis descriptivo de la traducción de los culturemas*. Publicacions de la Universitat Jaume I.

NorDaNor. (d.g). *1976tik 2021era argitaratu diren Asterixen euskal itzulpenak* [datu-basea]. 2021eko maiatzaren 26an hemendik eskuratua:
http://nordanor.eus/bilatu?h=es&n=l&e_or=&e_xt=Asterix&e_st=&e_eg=&e_it=&e_ar=&e_ge=&e_sh=&e_xh=42&e_sd1=&e_sd2=&e_xd1=1976&e_xd2=2021

NorDaNor. (d.g). *1900etik 2021era argitaratu diren haur eta gazte literaturako itzulpenak* [datu-basea]. 2021eko maiatzaren 26an hemendik eskuratua:
http://nordanor.eus/bilatu?n=l&e_or=&e_xt=&e_st=&e_eg=&e_it=&e_ar=&e_ge=2&e_sh=&e_xh=42&e_sd1=&e_sd2=&e_xd1=1900&e_xd2=2021

Ruiza, M., Fernández, T. eta Tamaro, E. (2004). Biografia de Balduino I de Bélgica. In *Biografías y Vidas. La enciclopedia biográfica en línea*. 2021eko maiatzaren 11an hemendik eskuratua:
https://www.biografiasyvidas.com/biografia/b/balduino_i_belgica.htm

Ullmann, S. (1978). *Semántica. Introducción a la ciencia del significado*. (J. Martín Ruiz-Werner, Itzul.). Aguilar.

Zamboni, A. (1988). *La etimología*. (P. García Mouton, Itzul.). Gredos.